

STEILAS ETA ELA SINDIKATUEN KOMUNIKATUA, APIRILAREN 12KO 1081/2017 EBAZPENAREN ONDORIOEI BURUZKOA. AIPATU EBAZPENA DELA MEDIO, 2.500 IRAKASLE BAINO GEHIAGO



KANPORATU ZITUZTEN KONTRATAZIO ZERRENDETATIK.

1081/2017 ebazpenaren bidez, **2.500 pertsona baino gehiago** bota zituen Giza Baliabideetako zuzendariak **kontratazio zerrendetatik** Bigarren Hezkuntzako masterra edo Lanbide Heziketako irakasle teknikoentzako prestakuntza (ez masterra) ez izateagatik. Neurri honen ondorioak mozzorrotzen saiatu ziren datu faltuen bidez (aipatu zen 11 pertsonen bakarrik zutela kontratua indarrean, egiazki 150 bat zirenean eta askoz gehiago ikasturtean eduki zutenak). **Neurri horrek irakasleei eragin die** (maiz lortezina den betekizuna eskatu zaie, ez baitago dagokion arloko prestakuntza eskaintzarik, edo horretan jarduteko mugak daudelako titulazioaren arabera) **baita Hezkuntza Departamentuari ere, ezin baitio eutsi bere prestakuntza eskaintzari.**

Daturik ez dute berretsi, nahiz Giza Baliabideetako zuzendariak irailaren 8ko Mahai Sektorialean haien berri emanen zuela agindu. Dena dela, gure datuen arabera, lanpostu asko bete gabe daude, nekazaritza-basozaintzakoez gainera. Horietako hautaprobak lehengo astean egin ziren. Gainera, zerrenda askotan ez dago irakaslerik ikasturtean sor litezkeen ordezkapenatarako.

Maiatzean aurkeztu genizkion kontseilariari gure proposamenak; Parlamentura ere eraman genituen, eta talde gehienen babesa eskuratu genuen. **Hona helburua: eragindako irakasleak zerrendetan izatea “prest ez daudenak” bezala, eskatzen zaien titulua lortu arte.** Gisa horretan, behin-behinekoz, Departamentuaren beharrak aseko ziren, irakasle masterdunik ez zegoen bitartean.

Hezkuntza Departamentuak ez zien men egin Parlamentuaren xedapenei, ezta Arartekoarenei ere, zeinak antzeko aholkuak eman baitzituen. Orobat, proposatu genuen master eskaintzak berehala handitzea NUPen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoentzako prestakuntza pedagogikoa eskaintzea. Gaur egun, egoera argilunez beterik dago: **ikastetxe askotan ez dute irakasle aski prestakuntza eskaintza osatzeko, eta prestakuntza ongi bai ongi erakutsi duen irakasle ugari lanik gabe dago.** Beti proposatu ditugu aterabideak, eta oraingo atakarako ere baditugu.

Hilabete bat iragan da, eta Departamentuak ez du Ebazpenarekin egin zuen akats negargarria zuzendu. **Departamentuak onartu behar du jendaurrean, ezin dituela bete lanpostu guztiak irakasle masterdunekin; prozedura bat zabaldu behar du lanpostu hutsak eta ikasturtean sor litezkeen ordezkapenak betetzeko izangaiei masterrik eskatu gabe eta haiek esperientziaren eta beste merezimenduen arabera ordenatuz.**

Bigarrenik, eskatzen dugu zerrendak muga gabe zabalik egotea masterra bukatzen dutenentzat zerrendetan sartzeko eta ikasturtearen bukaeran zerrenda guztiak berriz osoki birbarematzea, pertsona haiek berreskura dezaten aurrekoan zuten antzeko posizioa.

Azkenik, **galdatzen dugu Lanbide Heziketako irakasle teknikoentzako prestakuntza (ez masterra) NUPen eskaintzea eta modu taldekatuan eskari guztiak onartzea.**

Helburu hauek lortzeko, **irakasleei, ikasleei eta familiei dei egiten diegu hurrengo urriaren 2an, astelehenean, 18:00etan berriz ere kontzentratzeko Hezkuntza Departamentuaren aurrean.**

COMUNICADO DE LOS SINDICATOS STEILAS Y ELA SOBRE LAS REPERCUSIONES DE LA RESOLUCIÓN 1081/2017 DE 12 DE ABRIL POR LA QUE SE EXPULSÓ A MAS DE 2500 DOCENTES DE LAS LISTAS DE CONTRATACIÓN



Mediante la Resolución 1081/2017 la directora de Recursos Humanos **expulsó de las listas de contratación a más de 2500 personas** por carecer de la titulación de máster de secundaria o de formación pedagógica para el Profesorado Técnico de FP (no máster). Se trató de infravalorar la repercusión de la medida ofreciendo datos falsos (se dijo que tan sólo tenían 11 personas un contrato en vigor, cuando en realidad lo tenían unas 150 personas y otras muchas más lo habían tenido a lo largo del curso). **Pero esa medida no solo ha afectado al profesorado, que ha perdido de modo repentino e injusto su trabajo** (se les pide un requisito que, en muchos casos, es imposible de conseguir por no existir la oferta formativa o porque existen limitaciones para poderla cursar dependiendo de la titulación), **sino que además impide mantener los compromisos de oferta formativa del Departamento de Educación.**

No tenemos la ratificación de los datos, a pesar del compromiso adquirido por la directora de Recursos Humanos en la Mesa Sectorial de 8 de septiembre de comunicarlos. No obstante, según nuestros datos hay muchas plazas sin cubrir, aparte de las de la Escuela Agroforestal en la que se hicieron pruebas de acceso la semana pasada. Además, en muchas listas no queda profesorado para las posibles sustituciones que puedan surgir a lo largo del curso. En mayo entregamos a la consejera nuestras propuestas y las presentamos en el Parlamento, donde contamos con el apoyo de la práctica totalidad de los grupos. **Se trataba de mantener a todas las personas afectadas en las listas como no disponibles hasta que obtuvieran la titulación requerida y poder contar con ellas, de manera transitoria, para cubrir las necesidades del Departamento cuando no pudiera cubrirlas con profesorado que contara con el requisito de máster.**

Educación no quiso, ni siguió las indicaciones del Parlamento ni de la Defensoría del Pueblo, que se pronunció en el mismo sentido. También propusimos que, con carácter inmediato, se aumentase la oferta de plazas de máster en la UPNA y se ofreciese también la la Formación Pedagógica para el Profesorado Técnico de FP. Tampoco se ha puesto en marcha esta medida. **A día de hoy la situación es paradójica, muchos centros carecen de profesorado para completar la oferta formativa y por otra parte, profesorado que ha demostrado su preparación sobradamente está en paro.** Siempre hemos ofrecido alternativas y una vez más queremos hacer propuestas para la coyuntura actual.

Después de un mes de intentos fallidos para enmendar el error garrafal de la resolución, **el Departamento debe reconocer públicamente que es imposible cubrir todos los puestos de trabajo con el requisito de máster /no máster y debe abrir un procedimiento para la provisión de los puestos que faltan por cubrir y las sustituciones que surjan a lo largo del curso, sin exigir el máster /no máster a las personas candidatas y ordenándolas según la experiencia y otros méritos.** En segundo lugar, exigimos la apertura permanente de todas las listas para quienes terminen el máster se puedan incorporar a las listas y una rebaremación completa de todas las listas a final de curso, para que estas personas puedan recuperar una posición similar a la que tenían. Por último, **demandamos la oferta de la formación pedagógica para el profesorado técnico de Formación Profesional (no máster) en la UPNA,** de modo que puedan ser atendidas de manera agrupada todas las solicitudes.

Con el objeto de conseguir estos puntos, **el próximo día 2 de octubre, lunes, a las 18:00 llamamos a docentes, alumnado y familias afectadas a concentrarse otra vez delante del Departamento de Educación.**